

Osoko bilkura

Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean, 2017ko urriaren 27an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Jose Irazu “B. Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Beñat Oihartzabal, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Joan Mari Torrealdei, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri (11:15etik aurrera); Andoni Sagarnak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari;

Joan Mari Torrealdaik ahala Sagrario Alemani; Xarles Videgainek ahala Jean-Baptiste Battittu Coyosi; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2017ko urriaren 27an, ostiralean, 10:00etan hasi da Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko azken ostiraleko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman du goizean zehar Osoko bilkura eten eta, 11:00etan, Eusko Legebiltzarren eta Euskaltzaindiaren arteko lan-kidetzahitzarmen berria izenpetuko dela. Horrela, Eusko Legebiltzarren buruak eta Mahaiak harrera egingo diete euskaltzainei.

Batzarra, 2017ko urriaren 27an, ostiralean, 10:00etan hasi da Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko azken ostiraleko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman du goizean zehar Osoko bilkura eten eta, 11:00etan, Eusko Legebiltzarrean eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmen berria izenpetuko dela. Horrela, Eusko Legebiltzarrean buruak eta Mahaiak harrera egingo diete euskaltzainei.

1. Osoko bilkurako (2017-10-06) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Ana Toledo euskaltzainak bilera-agiriaren 5. orrialdean ageri den <<Literatura Ikerketa batzordeak eginiko proposamen bati...>> pasarteak <<Literatura arlotik eginiko proposamen bati...>> izan behar duela adierazi du. Izan ere, XX. Barne Jardunaldien ondoren irekitako prozesuan Literatura Ikerketa batzordeak eratu gabe segitzen baitu. Eginiko iruzkina onartu da Osoko bilkuran.

P. Zabaleta euskaltzainak bilera-agiriaren edukia baino bilera-agiriak jasotzen duen Euskaltzaindiaren eta Euskal Erakustokiaren arteko lankidetzahitzarmena izan du hizpide. Bere iritziz, hitzarmen hori baliatu beharko litzateke Euskaltzaindiaren eta Euskal Erakustokiaren funtsak trukatzeko eta bi erakundeen arteko biblioteken arteko lankidetzahitzak bideak bizkortzeko. A. Urrutiak azpimarratu du Zuzendaritzak hala egiteko borondatea duela, eta Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordeak bidea zehazteko aukerak izango dituela.

A. Urrutiak bestelako oharrik dagoen galdetuta, halakorik egon ez denez, 2017ko urriaren 6ko Osoko bilkuraren bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika. “Europako errege-erreginen grafia ez aldatzeko data”. Jaso-tako oharrik aztertu eta erabakiak hartu

Aztergaia jorrazteko hitza X. Kintana Exonomastika batzordearen buruak hartu du. Xabierrek gogorazi duenez, urriaren 6ko Osoko bilkuran aurkeztutako idatziari oharrik egiteko epea urriaren 20an amaitu zen. Irekitako aldiaren ez da oharrik iritsi. Ondorioz, Exonomastika batzordeak aurkeztutako gomendioa -arau

gisa ez baita argitaratuko berretsi da Osoko bilkuran. Berretsitako gomendioak dakar bere barnean Belgikako errege-erreginen inguruan salbuespena egitea. Izan ere, Belgikan hizkuntza ofizial bat baino gehiago daudenez, errege-erreginen izenak hizkuntza ofizial bakoitzaren arabera emango dira.

3. Exonomastika. “Errenazimentuko pertsona-izenak”. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu

A. Urrutia euskaltzainburuak oharrrik jaso den galdetu du. E. Osa idazkariordeak A. Iñigo euskaltzainaren ohar bat jaso duela aditzera eman du. Iruzkinean esaten da 2017ko maiatzaren 26ko Osoko bilkurako agiriaren 5. atalean, "A. Mujikak batzordeak aurkezturiko zerrenda berriz gainbegiratu duela adierazi du" jasotzen dela. Ondorioz, aditzera eman du: <<2017ko urriaren 6an izandako Osoko bilkuran, txosten horri oharrak egiteko epea urriaren 20a jarri bazen ere, pentsatzekoa da oharrak egin ahal izateko eskura izan beharko dugula oraingoz banatu ez zaigun batzordeak gainbegiratu duen zerrenda hori>>.

Gaia uztea erabaki da batzordeak gainbegiraturiko zerrenda Osoko bilkuran aurkeztu arte.

4. Exonomastika: Ordena militar eta ospitalarioen gizataldeen araugaia, ekainean aurkeztua. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu

A. Urrutia euskaltzainburuak oharrrik jaso den galdetu du. E. Osa idazkariordeak inolako oharrrik ez dela jaso aditzera eman du. Ondorioz, bi erabaki hartu dira. Batetik, araugaiari behin-behineko onarpena ematea. Bestetik, hurrengo Osoko bilkuran araugaiari behin betiko onarpena emateko, Onomastika batzordeari eskatzea araugaiari azken begiratu eman diezaion.

Puntu hau aztertu ostean, Osoko bilkura eten egin da Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren berria izenpetzeko. Hitzarmena izenpetu ondoren, Osoko bilkurak segida izan du, 12:00etatik aurrera.

5. Euskaltzaindiaren 2018. urteko bilkura arrunten egutegia. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu

A. Urrutia euskaltzainburuak oharrik jaso den galdetu du. E. Osa idazkariordeak aditzera eman duenez, A. Toledo euskaltzain osoak eta Elixabete Perez Gaztelu euskaltzain urgazleak R. M. Azkueren *Ardi galdua* liburuaren berrargitaratzeko proposamena egin dute, horretarako arrazoiak emanaz. X. Videgain euskaltzainaren idatzia idazkariordeak irakurri du. X. Videgainek zenbait argitalpen berriz argitaratzeko modukoak izan daitezkeen aztertzea proposatzen du, bai eta Euskaltzaindiaren Mendeurrena kontuan hartuz, mendean zehar izan diren euskaltzain oso guztien sarrera-hitzaldiak argitaratzea.

Iruzkinek ez dute 2018ko ohiko bilkuren egutegi proposamena zalantzan jartzen, egutegi proposamenarekin batera banaturiko informazio osagarria kontuan hartuz, berrargitaratu daitezkeen liburuak eta egin daitezkeen ekitaldi osagarriak (jardunaldiak eta abar) aipatzen baitituzte. Ondorioz, Osoko bilkurak 2018ko ohiko bilkuren egutegia onartu du. Era berean, Osoko bilkurak begi onez ikusi du A. Toledok eta E. Perezek eginiko proposamena, dagokion batzordearen esku utziz egitasmoa bideratzeko ardura. Gaiarekin amaitzeko, X. Videgain euskaltzainaren eginiko proposamenak dagokion batzordeak aztertzea eta, egoki irudituz gero, bideratzea erabaki du.

6. Esku artekoak

6.1. Biltzarretara joateko baimenak eta sortutako gastuak. Zuzendaritzak 2017ko urriaren 18an onarturiko Biltzarretara joateko baimenak eta sortutako gastuak izenburua daraman idatzia banatu eta irakurri du J. Zabaleta kudeatzaileak.

Euskaltzaindiarekin lotura duten pertsonen (euskaltzain, langile edo kolaboratzaileek) Akademian egiten diren lanak nazio biltzarretan edo nazioartekoetan ezaugarterakoan eta partekatzerakoan Euskaltzaindia nola ordezkatu behar duten finkatzea da helburua. Horrela, Zuzendaritzak onarturiko barne-ibilbide horren bidez, Euskaltzaindiaren izenean eta haren ordezkari jardun ahal izateko, eskaria nola bideratu behar den zehazten da (eskaria nork, zein eratar, gastuen ordainketa eta abar).

Zuzendaritzak 2017ko urriaren 18an hartutako erabakiaren jakitun geratu dira euskaltzainak.

6.2. Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku batzordeko Terminologia Batzorde-atal berezia. Eusko Jaurlaritzak eginiko eskariari erantzunez, Zuzendaritzak Gotzon Lobera, itzultzaile eta Sustapen batzordeko kidea, Terminologia Batzorde-atal bereziko kide izateko proposamena egin du, 2017ko urriaren 18an izandako bilkuran erabakitakoaren arabera. Osoko bilkurak berretsi du izendapena.

6.3. Ekitaldiak, bilkurak eta argitalpenak. Ondokoak aurkeztu dira:

6.3.1. Azaroaren 24ko Osoko bilkuraren tokia aldatzeko proposamena. Gaurko bilkuran, 2018. urteko lehenbiziko Osoko bilkura Donostian egiteko erabakia hartu da. Kontuan izanik 2017. urteko egutegiaren arabera, abenduaren 22ko Osoko bilkura ere Donostian egiteko erabakia hartuta dagoela, Zuzendaritzak 2017ko azaroko Osoko bilkura Donostian egitea proposatu du eta, abenduakoa, berriz, Bilbon. Osoko bilkurak ontzat eman du proposamen hori.

6.3.2. Azaroaren 17an, Gasteizko Montehermoso Kulturunean -Euskararen Etxean- XXII. Jagon jardunaldia egingo da, Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen eskutik. *Araba, euskaraz bidea egiten* izango da XXII. Jagon jardunaldiaren goiburua. Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak jardunaldiaren egitaraua aurkeztu du.

6.3.3. Azaroaren 20tik abenduaren 17ra, *Pirinioetako hizkuntzak* erakusketa ikusgai egongo da Baionan, Euskal Erakustokian. Inaugurazio ekitaldia azaroaren 20an, astelehenean, egingo da, 18:30ean. Erakusketa hori Baionako Udalaren eta Euskaltzaindiaren hitzarmenean aurreikusita dago, bai eta Euskaltzaindiaren eta Euskal Erakustokiaren artean berriki izenpeturiko lankidetzahitzarmenean ere.

6.3.4. Argitalpen berriak. Aditzaera eman denez, laster egongo da kalean 2016. urteari dagokion *Euskera* agerkariaren ikerketa zenbakia. Era berean, José Ángel Chasco ikertzailearen *Toloño nexo de la Montaña y la Rioja Alavesa* izenburua daraman liburua inprimatzen ari dira eta azaroan aurkeztuko da.

7. Azken ordukoak

Azken ordukorik ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:10 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,

Andres Urrutia

Idazkaria,

Xabier Kintana